

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 48. atala

DATA: 2025/10/10

GUREAN

GURE HAURRAK ERE BADIRA

Urriaren 25ean Bilbon elkartasun ekimena eta manifestazioa egingo da. Egun horretan zehar, elkartasun ekintza eta jarduera bereziak izango dira, eta arratsaldean, 17:30ean, Jesusen Bihotzetik abiatuko den manifestazio nazionala egingo da. Ikastolen komunitate osoa gonbidatuta dago haur palestinarren aldeko elkartasuna adieraztera, zapatak ikur gisa erabiliz eta "Gure Haurrak ere Badira" kamiseta jantzita.

Egitasmo honen hastapenetik, zapatak izan ditugu elkartasun ekimenen haria eta, horregatik, aste hauetan biltzen ari gara ikastoletan. Manifestazioan erabiliko dira udaletxera iristean. Denok batera Palestinaren alde pauso bat aurrerago emateko prest?



GURE INGURUAN

FENOMENA JAIALDIA

NOIZ: AZAROAK 11
NON: HONDARRIBIA

2016an antolatu zen lehen Fenomena jaialdia. Fenomena Kultur Elkarteak sustatuta, bere helburua, hasieratik, herritarrei musikarekin lotutako ekitaldi bat eskaintzea izan da, hiriko hainbat gunetan eta, batez ere, egunean zehar.



Kontzertuak (doan).

17:00 Elliott Smith omenaldia

18:30 Pinpilinpussies


19:30 Ebbot Lundberg and The Solar Circus

21:15 The Guru Guru

23:00 Black Rainbows

ZER PROPASATZEN DUZU?

Hemendik aurrera hauze izango da zuen txokoa. Familia, ikasle, irakasle eta langile guztiek hartu dezakete parte astekean. Edozein abisu, iragarki, proposamen edo plan guri helarazi eta astekean argitaratuko dugu. Denon artean bizirik mantenduko dugu proiektua!



**ZUEN PROPOSAMENAK
HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus**